

## Proiektu artistikoak nazioartera eramateko laguntzak

### ESKATZAILEAK

- Kulturaren esparruko irabazi asmorik gabeko entitateak
- Pertsona fisikoak

### JARDUERAK

- Artearen eta kulturaren alorreko jaialdi edota lehiaketetan parte hartzea
- Artearen, musikaren, antzerkiaren edo dantzaren alorreko emanaldiak eskaintzea

### BALDINTZAK

- Estatu espainoletik kanpo
- Frantzia bada, abiapuntutik 200 km-tara
- Deialdiaren urte naturalean gauzatzea, (urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean)
- Egoitza soziala eta fiskala Gipuzkoan
- Ekonomikoki bideragarria izatea

Eskatzaile bakoitzak eskaera bakarra aurkez dezake deialdi honetan

## GEHIENEZ 20.000€

### AURKEZTU BEHARREKOA

- Eskaera orria beteta
- Diru laguntzaren xede den proiektu, programa edo jardueraren azalpen-txostena
- Proiektuaren diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu xehatua (horretarako aplikazioan atxikitzen den eredia bete)

### BALORAZIOA BI FASETAN:

- **1. fasea:** balioetsiko dira, testuinguruaren interesa, ibilbide eta esperientzia artistikoa, proposamenaren kalitatea eta interesa 40 puntu arte

- **2. fasea:** proposamenaren bideragarritasuna, euskararen presentzia, emakumeen eta gazteen parte hartzea 20 puntu arte

1. fasean 25 puntu lortu beharko dira 2. fasera igaro ahal izateko, eta gutxienez 35 puntuko balorazioa lortu beharko da bi faseen baturan, proiektua dirulaguntza emateko proposamenean sar dadin.

### KANPO GELDITZEN DIRA

**a)** Deialdiaren aurreko bi urteetako baten Mundura dirulaguntza izan duten pertsona edo entitateak

**b)** Kultura Zuzendaritza Nagusiaren dirulaguntza izenduna duten entitateak

**c)** Beren izaeragatik edo xedeagatik, Kultura Zuzendaritza Nagusiaren jarduera esparruekin zuzenean zerikusirik ez dutenak

**d)** Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuko beste laguntza deialdi batzuetan espresuki sartuta daudenak edo hobeto egokitzen direnak. Beraz, bidezkotzat jotzen diren eskaerak deialdi horietan sartuko dira

**e)** Emanaldi edo erakustaldi artistiko bat eskaintzeko helbururik gabe egindako joan-etorriak, hala nola ikastaroetan parte hartzea eta beste batzuk

1. fasea	40
Testuinguruaren interesa	20
Ibilbide eta esperientzia artistikoa	10
Proposamenaren kalitatea eta interesa	10
2. fasea	20
Proposamenaren bideragarritasuna	5
Euskararen presentzia	5
Emakumeen parte hartzea	5
Gazteen parte hartzea	5

## DIRU KOPURUA

Diru laguntzaren zenbatekoak ez du gaindituko diruz lagundu daitekeen programa garatzeko aurreikusitako gastuen % 70a

Horrek esan nahi du proiektu bakoitzak gutxienez aurrekontuaren% 30 ziurtatu behar duela beste iturri batzuen bidez: publikoak, pribatuak, pertsonalak...

## EPEAK

- ESKAERAK AURKEZTEKO  
Dirulaguntza horien eskaerak aurkezteko epea.  
Azken eguna: 2022-05-31

- ZURIKETA AURKEZTEKO  
Agiriak aurkezteko epea deialdiaren hurrengo urteko martxoaren 1ean amaituko da.
- ORDAINKETA  
Laguntzak bi zatitan ordainduko dira: %60 emateko ebazpenarekin batera eta gainerako %40a diruz lagundutako jarduera amaitu ostean.

## TRAMITAZIOA NOLA

Prozesu osoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza administratiboaren bidez egin behar da (<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/>)

Horretarako pasahitz operatiboa eduki behar duzu, edo ziurtagiri digitalen bat (B@kQ, DNle...)

Taula hauek K bulegoak egindako laburpenak dira. Oinarrien xehetasun guztiak, eskaerak aurkeztu, inprimakiak eta aurkeztu beharrezko dokumentazioa: [Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 78 zk., 2021-04-29](#) [Deialdia](#)

Edozein zalantza baduzu, K bulegoarekin jar zaitezke harremanetan telefonoz, emailaz edota bertara hurbilduta. Atsegin handiz lagunduko zaitugu zure eskaerari dagokionez izan ditzakezun dudekin.

[www.kbulegoa.eus](http://www.kbulegoa.eus)

(+34) 943 113 343 / [kbulegoa@gipuzkoa.eus](mailto:kbulegoa@gipuzkoa.eus) /  
Errege-erregina Katolikoaren kalea, 16 / 20006 Donostia.

Astelehenetik ostegunera: 10:00-14:00

\*Bidelaguntza zerbitzua erabilgarri duzu,  
bulego ordutegitik kanpo ere.

K  
B  
U  
L  
E  
G  
O  
A

